

## *Soldatarik ezean, diru sarrera bat, behintzat*

LANGABEZIA KOB RATZEKO, LEHEN-LEHENIK, INEMEK DITUEN BULEGOETARA JO BEHAR DU LANGABEAK, HANGO ZERRENDETAN IZENA EMAN ETA LANGABEZI SARIA EMAN DIEZAIOTELA ESKATU. LANA GALDU ETA HURRENGO 15 'LANEGUNETAN' EGIN BEHAR DITU ESKABIDE GUZTIAK



Urtebete pasatxoan krisi ekonomikoak bide egin du: higiezin merkatua ez atzera ez aurrera geratu da eta lanarekin itota zeuden asko, kalean. Espainian, bi milioi eta erdi langabe daude egun, azken hamar urteetan izan denik eta gehien. Langabezi saria ezinbesteko bihurtu zaie.

Langabe bakoitzari zer eta zenbat dagokion erabakitzeke, azken sei urteetako kotizazio aldi eta oinarriak hartzen dituzte kontuan. Saria jasotzeko, gutxienez, urtebetez lan egin behar izaten da besteren kontura. Gutxiago aritu direnek diru laguntza bat jasotzeko modua izan dezakete baina beste-lako baldintza batzuk jartzen dizkiete. Beste aukera bat izaten da langabezi saria ordain bakarrean jasotzea, baina horretarako, kooperatiba edo lan sozietate bati atxiki behar zaio langabea, edo halako bat sortu behar du, edo, bestela, bere kontura jarri behar du, autonomo moduan.

### **Kontratua bukatzen zaion pertsonak, ze eskubide ditu?**

langabezian geratu eta hurrengo egunetik aurrera aitortzen zaio saria edo beste laguntzaren bat jasotzeko eskubidea. 360 edo gehiago eman baditu lanean, langabezi saria jasotzea dagokio, eta denbora gutxiagoz aritu bada, diru laguntza jasotzeko eskubidea izango du.

### **Zenbat denboraz egon gaitzke langabezia kobratzen?**

Azken sei urteetako kotizazioa ikusi behar da. 360 egunetik 539 bitarte lan egin duenari 120 egunez emango diote saria. 540 eta 719 bitartean lan egin duenari,



LEHENBIZIKO HIRU HILABETEETAN  
OINARRI ARAUTZAILEAREN %70  
KOBRTZEN DA ETA HORTIK AURRERA %60



180 egunez, eta hortik gora egin duenak, egun gehiagotan jaso ahal izango du, bi urterarte, gehienez. Horixe dagokio sei urteko kotizazioa izan duen langileari (720 eguneko saria, 2.160 egun kotizatzeagatik).

### Eta saria bukatuta, langabe bagaude?

- Familia erantzukizunak dituztenek, sei hilabetez diru laguntza jaso ahal izango dute, eta sei hilabete behin berrituko zaio, 18 hilabete arteraino, gehienez ere.
- 45 urte baino gehiago dituztenek, eskubidea dute diru laguntza jasotzeko, sei hilabetez. Hori agortzen dutenean, langabeziari dagokion ohiko diru laguntza jaso ahal izango dute.

### Zenbat diru jasotzen da?

Lehenbiziko 180 egunetan, oinarri arautzailearen % 70a. Oinarri hori kalkulatzeko, langabeziara joan aurreko 180 egunetan zein lan oinarrirentzat eta gaixotasun profesionalentzat kotizatu denarekin batez bestekoa egiten dute. 181. egunetik aurrera, oinarriaren % 60 ematen diote langabeari.

Seme-alabak izanez gero, laguntza ezingo da izan Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoak (IPREM) ezartzen duenaren % 107 baino txikiagoa. Adierazle hori erabiltzen da hainbat arlotan diru sarreraren gutxieneko muga kalkulatzeko, eta kasu honetan, muga horrek ezartzen duena halako sei dagokio langabeari: 2008. urtean, 645 euro hilean. Diru sarrerarik izango ez balu, hilean 482 euro jasoko litzuke. Seme-alabarik ez duen langabea 1.055 euro jasot-

zera irits daiteke eta gurasoa bada, 1.206 euro kobra ditzake ume batekin eta bi edo gehiagorekin hilean 1.356 euroraino hel daiteke (atxikipenak barne). Etxean adin nagusiko seme alabarik badago, langabezi saria jaso ahal izateko, 26 urte baino gutxiago eduki behar dituzte (edo % 33ko edo gehiagoko ezintasuna), eta haien errenta Lanbidearteko Gutxieneko Soldata baino txikiagoa izan behar du, paga bereziari edo estrari dagokion zati proportzionala kenduta (600 eurokoa da kopuru hori).

### Amatasun baimenarekin dagoenari kontratua bukatzen zaionean?

Legez langabe bihurtuko da eta 15 lanegun ditu langabezi saria eskatzeko.

### Eta bitartean?

Amatasun baimenari dagokion saria jasotzen jarraituko du, ordu arte bezala.

### Langile bati ez badiote eman kaleratze agiririk eta enpresa itxi badute, zer?

INEMen bulegoetan emango dizkioten inprimakietan adierazi behar du dokumentaziorik ez diotela eman eta zergatik. Langilea kaleratu dutela erakusten duen dokumentu idatzia behar da, eta ez balu, adiskidetzeko ekitaldiaren akta batekin frogatu beharko luke zein egoeratan dagoen edo Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren txosten bat aurkeztu beharko luke, non esaten den bere borondatearen kontra utzi behar izan diola lan egiteari eta zein egune-

tatik aurrera utzi dion. Xehetasun guztien berri eman beharra dago, eta kaleratzearen aurkako helegitea jarri behar da Bitartekaritza, Arbitraje eta Adiskidetze Zerbitzuan (SMAC).

### Eta langabea atzerritarra bada?

Espainiako herritartasuna dutenen eskubide berberak dauzka. Europako Batasunetik edo Europako Ekonomia Gunetik kanpokoak badira, egoiliar baimen iraunkorra dutela frogatu behar dute, edo, bestela, aldi baterako baimena dutela eta besteren kontura ari direla lanean.

### Eta bere herrialdera itzultzeko asmoa badu?

Zenbait herrialdetako herritartasuna duten langileek, langabezi saria jasotzeko eskubidea badute, eska dezakete saria aurreratuta diezaietela eta aldi bakarrean ordaindu, baldin eta konpromisoa hartzen badute euren herrialdera itzuliko direla 30 lanegun igaro baino lehen, eta ez direla Espainiara joango hiru urtean, gutxienez. Herrialdea, hauexek dira: AEB, Andorra, Argentina, Australia, Brasil, Dominikar Errepublikak, Ekuador, Errusiar Federazioa, Filipinak, Kanada, Kolonbia, Maroko, Mexiko, Paraguai, Peru, Tunisia, Txile, Ukraina, Uruguai eta Venezuela.

### Behar adinako kotizatorik gabe eta langabezi saria jasotzeko eskubiderik gabe geratuaz gero?

Lan harremana bukatu eta hurrengo 15 egunetan, Lan Zerbitzu Publikoan eman dezake izena eta jarduera konpromisoa sina

dezake. Gutxieneko kotizazio aldira iristen ez bada (360 eguneko da), ez du langabezi saririk jasoko, baina gutxienez sei hilabeteko kotizazioa badauka, langabeziari dagokion diru laguntza jaso ahal izango du. Beti ere, errenta ez bada Lanbidearteko Gutxieneko Soldata baino % 75 handiagoa.

### Zenbatekoa da diru laguntza hori?

45 urtetik gorako langileei -24 hilabeteko langabezi saria dagokienei- ematen dieten diru laguntza berezia alde batera utzita, gainerako laguntzak 413 eurokoak dira hilean.

### Eska ote daiteke langabezi saria ordain bakarrean?

Bai, baldin eta langabeak gutxienez hiru hilabeteko saria jasotzeko adina kotizatu badu, eta ez badu eskubide hori gauzatu aurreko lau urteetan. Frogatu beharko du elkarlaneko kooperatiba bateko bazkide langile bihurtuko dela aurki, edo lan sozietate batean hasiko dela, eta modu iraunkorrean jarraituko duela han lanean. Kooperatiba edo lan sozietate bateko kide bihurtu ahal izango da, baldin eta lehendik ez badu izan harekin kontratu harremanik 24 hilabetez baino gehiagoz. Nahiago badu autonomo bihurtu, lan jarduera hasi aurretik eskatu behar du ordain bakarra. Zer kopuru jasoko duen kalkulatzeko, zenbateko langabezi saria dagokion hartzen da kontuan, eta horixe emango diote, diruaren lege interesa kenduta. Ordain bakarra jaso ondoren, hilabete izango du lan jarduera hasteko, eta hartara bideratu beharko du eman dioten laguntza. Hala egin ezean, itzuli egin beharko du dirua. //

## LANGABE SARIA eskatzeko urratsak:

Lan Zerbitzu Publikora joan, lan bila ari direnen zerrendan izena eman eta langabezi saria eskatu. Lanik gabe geratu ondorengo 15 lanegunetan.

Ematen diguten inprimakia bete eta aurkeztu. Han adierazi beharko dugu zenbat seme-alaba dauzkagun, ordainketak helbideratzeko datuak emango dizkiegu, jarduera konpromisoa sinatuko dugu, eta Zerga Agentziari informazioa eskatu ahal izateko baimena ere bai.

NA eta Familia Liburua eraman behar ditugu. Espainiako herritartasuna ez badugu, Nortasun Txartela eraman behar dugu eta Familia Liburuaren baliokidea den dokumentua.

Azken sei hilabeteetan zein enpresatan lan egin dugun erakusten duten agiriak eraman behar ditugu. Enpresaburuak behartuta daude enpresa agiriak ematera hamar egunen buruan, legez langabezia gaudela frogatzen duten dokumentu idatzia eman behar dizkigute, eta kotizazioen dokumentu ofizialen kopiak.

Langabezi saria ematea onartu eta ez bagaude ados (emango diguten kopuruarekin, adibidez), edo langabezi saririk gabe utzi bagaituzte, ustez bidegabeki, auzitara jo aurretik, 30 eguneko epea izango dugu erreklamazioa idatziz egiteko Lan Zerbitzu Publikoan. Gure datu pertsonalak jarri behar ditugu, non bizi garen, zein gertakariren aurkakoa den erreklamazioa, zergatik egiten dugun, non eta zein egunetan; eta azkenik, sinatu. Kudeaketa egin duen erakundeko probintzia zuzendariari zuzendu behar gatzazkio, eta gure alde egingo duen dokumentazio guztia aurkeztu. Gure erreklamazioa atzera botako balute, auzitara jo ahal izango genuke, Lan Arloko Epaitegira. ■